



Olimpiada Lingüística d'Espanya
Olimpiada Lingüística de España
Espainiako Olinpiada Linguistikoa
Olimpiada Lingüística de España

1. txanda

OLE 2016

Banakako proba
2016ko urtarrila



Jarraibideak

- Idatzi erantzunak erantsitako erantzunen txostenean. Koaderno hau erabil dezakezu oharrak idazteko, azpimarratzeko, zirriborroak egiteko eta problema ebazteko behar duzun edozein gauza egiteko. Soilik erantzunen txostena bueltatu behar duzu.
- Azterketa egiteko 3 ordu izango dituzu.
- Zuzenketa-irizpideak:
 - (A) 10 puntu
 - (B) 30 puntu
 - (C) 25 puntu
 - (D) 35 puntu
 - Guztira: 100 puntu

Eutsi goiari!
OLE taldea

Aurkibidea

PROBLEMA	AUTOREA	ORRIALDEA
(A) Indiako bokalak*	Ilya Itkin	2
(B) Matematikak skou hizkuntzak*	Petr Arkádiev/Svetlana Burkak	3
(C) Postre georgiarrak*Yákov Testelets	4
(D) Igboko lagunak*Petr Arkádiev	5

*Rusiako Olinpiada Linguistikokoaren jatorrizko ariketak. OLEren talde antolatzaileak egindako itzulpena eta egokitzapena.



(A) Indiako bokalak (10 puntu)

Indiako idazkeren aldaeren artean ikur bereziak daude silaba baten hasierako bokalak idazteko. Ondoren adierazten dira hasierako zazpi bokalen ikurrak aldaera horietako batentzat, alegia, brahmi makurrarentzat, eta haien transkripzioa latinaren alfabetoan, hautazko ordenan:



a, e, i, ä, ī, ū, ā

A1. Korrespondentzia zuzenak zehaztu. Azaldu zure ebazpena.

A2. Transkribatu latinezko alfabetoan:



Oharrak: "ä" bokal berezi bat da. Bokalen gaineko marratxoak haien iraupena adierazten du.



(B) Matematikak skou hizkuntzan (30 puntu)

Skou (tumawo) hizkuntza 700 pertsona inguruk hitz egiten dute Ginea Berria uhartearen Indonesia alderdiko ipar-ekialdean. Skou hizkuntzan (latinezko transkripzioan) partzialki zenbakiekin idatzitako eragiketa hauei erreparatu:

- 1) $hangpà\ pa\ hìngtung + nàhìpa = 22$
- 2) $hangpà\ pa\ nàhìpa\ pa\ héngtong - nàhìpa\ pa\ hìngtung = 13$
- 3) $hangpà\ pa\ nápang\ pa\ áling + héngtong = 21$
- 4) $hangpà\ pa\ nàhìpa - hangpà\ pa\ nongpong = 4$
- 5) $hìngtung + áling = héngtong$
- 6) $nongpong + héngtong = nàhìpa - áling$

B1. Goiko adibideetan ordeztu zifrekin idatzitako zenbakiak skou hizkuntzan idatzitako zenbakiekin.

B2. Idatzi eragiketa hauek skou hizkuntzaren zenbakiekin

- 1) $9 + 2 = 11$
- 2) $5 \times 3 = 15$

B3. Zenbaki hauetako zein ez da existitzen skou hizkuntzan?

- 1) $hangpà\ pa\ héngtong$
- 2) $nàhìpa\ pa\ nongpong$
- 3) $hangpà\ pa\ nápang$

Oharrak. ` y ´ ikurrek bokal bat ahoskatzeko modu bereziak adierazten dituzte (tonua).



(C) Postre georgiarrak (25 puntu)

Ondoren gaztelaniazko hainbat adierazpen azaltzen dira hautazko ordenan georgierara itzulita (latinezko alfabetoan idatzita). Kontuz, euskarazko zenbait adierazpenek bi korrespondentzia dute georgieraz.

Euskara	Georgiera
1 - opil goxorik gabe	A - gemrieli nayebit
2 - kanelarekin	B - am zetit
3 - izozkirik gabe	C - nušiani
4 - olio horrekin	D - txilis saneleblit
5 - hurrik gabe	E - gemrieli puntušis gareše
6 - almendrekin	F - nušit
7 - krema goxoarekin	G - daričiniani
8 - almendra-oliorik gabe	H - utxilo
9 - hurren gozagailuarekin	I - naqinis gareše
	J - daričinit
	K - nušis zetis gareše
	L - unaqino
	M - txilis gareše

C1. Itzulpen zuzenak zehaztu.

C2. Georgierara itzuli adierazpenen forma posible guztiak:

- 1) kremarekin
- 2) kremazko izozkiarekin
- 3) almendrarik gabe
- 4) gozagailu hori gabe

Oharrak. Letra hauek č, γ, š eta q georgierazko kontsonante bereziak dira.



(D) Igboko lagunak (35 puntu)

Igbo hizkuntza (asụsụ Ndi Igbo) Niger-Kongo familiako hizkuntza bat da. 18 milioi pertsona inguruk hitz egiten dute Nigerian. Hona hemen zenbait esaldi igbo hizkuntzan (ohiko ortografian) eta haien euskarazko itzulpenak:

Obi gara ahĩa.	Obi azokara joan da.
Obi agaghị ụlọ.	Obi ez da etxera joan.
Ike na agba egwu.	Ike dantza dantzatzen ari da.
Ike agaghị agba egwu.	Ikek ez zuen dantza dantzatuko.
Obi zụrụ ụlọ.	Obik etxea erosi du.
Obi azụghị akwụkwọ.	Obik ez du liburua erosi.
Ike na eghe azụ.	Ike arraina frijitzen ari da.
Ike ga agụ akwụkwọ.	Ikek liburua irakurriko zuen.
Obi ga eri anụ.	Obik haragia jango zuen.
Ike agaghị eghe anụ.	Ikek ez zuen haragia frijituko.
Obi ghere azụ.	Obik arraina frijitu du.

D1. Itzuli euskarara:

1. Obi ga aga ụlọ.
2. Ike erighị anụ.
3. Obi na azụ ụlọ.
4. Ike anaghị eghe azụ.

D2. Itzuli igbora:

1. Ikek haragia jan du.
2. Obi ez doa azokara.
3. Obik dantza dantzatu du.
4. Obik arraina erosiko zuen.
5. Ikek ez du haragia frijitu.
6. Ikek ez du liburua irakurri.

D3. Hizkuntzalari bat igbo hizkuntza ikasten hasi zen orain dela ez asko, eta esaldi hau entzun zuen:

Obi agaghị agụ akwụkwọ

Hizkuntzalariak bertako hitzun bati galdetu zion ea esaldi horrek esanahi hau zuen: “_____”. Hitzunak irribarre egin zuen, eta erantzun zuen hau esan nahi zuela: "Obik ez zuen liburua irakurriko". Zer esaldi galdetu zion hizkuntzalariak bertako hitzunari?

Oharrak: gb, gh, gw, kw kontsonanteak bereziak dira igbo hizkuntzan.